

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendáriz  
Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria  
Ander Aguiriano Errasti  
Edorta Barandiaran García  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Begoña Eraña Lazkano  
Karmelo Leceta Abasolo  
Maidier Otamendi Tolosa  
Juan Luis Merino Sanabria  
Ignacio Pierrugues Barberán.  
Leire Okaranza Ibabe

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamarreko apirilaren hogeita zortzian, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veintiocho de abril de 2010, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2010/03/31n egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK ETA ERABAKIAK**

### **2.1.- ERABAKIAK**

Alkate jaunak 2010eko apirilaren 23ra arte hartutako erabakien berri eman du eta horien laburpenaren kopia banatu du.

Bereziki aipatu ditu ondoren hitzez hitz transkribatzen diren erabakiak, eta adierazi du horien berri zehatzagoa hurrengo Hazienda batzordean emango duela.

#### **B10/00241 ALKATE ERABAKIA**

*Fondoan kontuhartzaileak egindako 2009ko Udal aurrekontuen kitapena eta hori osatzen duten dokumentuak ikusirik eta horiekin ados egonik, eta Toki Erakundearen aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 49.3 artikulua ematen dizkidan eskumenak erabilia, Alkate naizen honek honako hau*

#### **ERABAKI DUT**

**Lehenengoa.-** 2009ko Udal Aurrekontuaren Kitapena onartzea. Hona hemen kitapenaren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak 2009-12-31n.		295.733,46 €.
2.- Kobratu gabeko saldoak 2009-12-31n.		3.023.684,24 €.
Aurrekontuko zordunak	1.082.514,43 €.	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.941.169,81 €.	
Aplikatu gabeko kobrantzak:		
3.- Ordaindu gabeko saldoak 2009-12-31n.		587.923,04 €.
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	456.673,27 €	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:		
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	130.924,77 €.	
Aplikatu gabeko ordainketak:		
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		2.731.819,66 €.
5.- Saldo kobragaitzak:		550.810,16 €.
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5)		2.181.009,50 €.
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako geldikina		343.401,58 €.
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		1.837.607,92 €.
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		(-) 452.844,86 €.
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		(-) 4.123,62 €.
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		1.120.608,23 €.

12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	(-211.164,83 €
13.-Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	874.804,58 €.
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak	1.059.341,69 €.
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	167.795,20 €.
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	1.227.136,89 €.

**Bigarrena.-** Ondorengo kreditu aldaketa espedienteen behin-behineko onarpenak behin betiko bihurtzea 2009ko aurrekontuaren kitapena onartutakoan.

ESPEDIENTE ZKIA.	BEHIN BEHINKO ONARPENAREN DATA	MODALITATEA	ONARTU ZUEN ORGANOA
1	15/01/2010	Aurrerapenez inkorporazioa.	25 zki.dun alkate erabakia.
2	02/02/2010	Kreditu gehikuntzak	64 zki.dun alkate erabakia.
3	24/02/2010	Kreditu gehikuntzak	2010/02/24ko udalbatzarra.
4	09/03/2010	Aurrerapenez inkorporazioa	159 zki.dun alkate erabakia.

**Hirugarrena.-** Kitapen espedientearen kopia bidaltzea Gipuzkoako Foru Aldundiari lehen aipatutako Foru Arauko 49.5 artikuluan ezarritakoa betez.

**Laugarrena.-** Erabaki hau Udalbatzarrari jakinaraztea egingo den lehenengo osoko bilkuran.

Eskoriatza, 2010eko martxoaren 31, asteazkena  
Alkatea

Era berean, aipatutako espedientea dela-eta, idazkari-kontuahartzaileak egindako txostenaren berri eman da. Txosten horretan esaten da abenduaren 12ko 18/2001 Legeak eskatutako aurrekontu-egonkortasun helburua bete dela.

#### ALKATEAREN ERABAKIA

**ZENBAKIA:** B10/00251

**DATA:** 2010/04/06

**GAIA:** KREDITU ALDAKETA: TXERTAKETA (inkorporazioa)

**ESPEDIENTEA:** 2010KKRI0003

Eskoriatzako Udalaren 2010eko Aurrekontuan kreditu aldaketa espedientea tramitatu da, aurreko urteko Aurrekontuko kreditu soberakinak txertatzeko.

Aipatutako espedientea aztertu ondoren, onespren proposamena ere aztertu dugu, eta baita espedientean egindako gainerako jarduketak ere.

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauk 32.6. artikuluan kreditu txertaketa onesteko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, Alkate naizen honek honako hau

#### ERABAKI DUT

**Bat.-** 5 zenbakidun kreditu aldaketa espedientea onartzea -aurreko ekitaldiko aurrekontuko soberakinak 2010eko Aurrekontuari txertatzeari buruzkoa-, ondorengo kapitulu laburpen honen arabera:

GASTUAK-GEHIKUNTZAK

Kap.	Izena	Euroak
1	Personalarren gastuak	
2	Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea	25.841,32 €
4	Transferentzia arruntak	
6	Inbertsio errealak	463.935,38 €
7	Kapital transferentziak	
8	Aktibo finantzarioak	5.000,00 €
9	Pasibo finantzarioak	
TXERTATUTAKO SOBERAKINAK GUZTIRA		494.776,70

SARRERAK-FINANTZAKETA

Cap.	Denominación	Euros
4	Transferentzia arruntak	5.750,00 €
6	Hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk	59.117,41€
7	Kapital transferentziak	15.000,00 €
8	Aktibo finantzarioak. Diruzaintzako soberakina	414.909,29 €
KREDITU TXERTAKETAK GUZTIRA		494.776,70 €

**Bi.-** Egintza hau irmoa eta betebeharrezkoa da bestelako tramite barik; beraz, Fondoaren Kontuhartzaitza zerbitzuek, onartutako aldaketa Kontabilitatean sartu beharko dute berehalako ondorioekin, sarreretan zein gastuetan.

Eskoriatzan, 2010eko apirilaren 6an.  
ALKATEA

Era berean, aipatutako espedientea dela-eta idazkari-kontuhartzaileak egindako txostenaren berri eman da. Txosten horretan aurrekontu-egonkortasun helburua ez dela betetzen esaten da eta aipatzen da, hori horrela izanik ere, ez dela beharrezkoa ekonomia eta finantza planik onartzerik 2010eko aurrekontuaren kitapena egin arte, abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duen erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** B10/00274

**DATA:** 2010/04/14

**GAIA:** KREDITU HABILITAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA

**ESPEDIENTEA:** 2010eko aurrekontuari egindako 6. kreditu aldaketa

**INTERESDUNA:**

Idazkari-kontuhartzaileak 2010eko aurrekontuari egindako 6. kreditu aldaketaren onarpen espedientea idatzi du (kreditu habilitazio motakoa).

Espedientea osatzen duten dokumentuak ikusi eta egokiak iritzita, Alkate naizen honek honako hau

## **ERABAKI DUT**

1.-. Kreditu-Habilitazio espedientea onartzea (2010eko aurrekontuari egindako 6 kreditu aldaketa), sarrera finalisten diru-bilketaren ondorioz sortutakoa. Guztira, 440.105,00 €.

**Eskoriatzan, 2010eko apirilaren 14an.**

ALKATEA,

Era berean, aipatutako espedientea dela-eta idazkari-kontuhartzaileak egindako txostenaren berri eman da. Txosten horretan aurrekontu-egonkortasun helburua ez dela betetzen esaten da eta aipatzen da, hori horrela izanik ere, ez dela beharrezkoa ekonomia eta finantza planik onartzerik 2010eko aurrekontuaren kitapena egin arte, abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duen erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## **2.2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK**

Alkate jaunak adierazi duenez, gaur arratsaldean Aranburuzabalako mendi-hegaleko obra zuzendaritzaren mezua jaso du posta elektronikoz, eta bertan jakinarazten diotenez, obrak aurreikusitako epean amaituko dira, hil honen 30erako, eta datorren astean bilera izango dute enpresa kontratistarekin egin beharreko garbiketa eta konponketa lanak ikusteko. Horrekin guzti horrekin, eta Alkatearen hitzetan hori da garrantzitsuena, beste etxe batzuetan ostatu hartuta daudenak beraien etxeetara itzuli ahal izango dira.

## **3.- “BIODIBERTSITATEA ZAINTEKO NEURRIEI” BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Alkate jaunak hitza hartu eta ondorengo testua irakurri du (hitzez hitz transkribatzen da):

*Jakingo duzuen bezala Nazio Batuek 2010. urtea biodibertsitatearen urtea izendatu dute. Baina hau ez da kontu berria: argi dago gobernu eta instituzio gehienak pasa den mendeko amaieratik dibertsitate biologikoa zaindu beharraren garrantziaz ohartu direla.*

*La importancia de la conservación de la diversidad biológica es un hecho constatado desde finales del pasado siglo por la gran mayoría de gobiernos e instituciones del planeta.*

*Adibide gisa honako mugarri hauek azpimarratuko ditut:*

**1972an Stockholmeko nazioarteko biltzarra:** lehen aldiz onartu zen nazioartean ingurugiroa babesteko eta hobetzeak garapen ekonomikoan eta munduaren oparotasunean eragina dutela.

**Biodibertsitate Ekologikoari buruzko Munduko Hitzarmena. Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarrean, 1992an, Rio de Janeiron garatu eta sinatu zena.** Hitzarmen honek mundu mailan lehenengoz biodibertsitatearen berezko balioa aitortzen zuen (“elementu funtsezkoa gizakiaren ongizatearen kalitaterako, eta erabakigarria gure dimentsio sozial, ekonomikoa eta espiritualari eusteko”)

Orduz geroztik, ugari izan dira biodibertsitatea babesteko hainbat erakundek hartutako erabakiak. Gugandik hurbilago:

**Eusko Jaurlaritzaren 2002-2020 aldirako Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen estrategia; 2007-2010 aldirako II. Ingurumen Esparru Programa eta 2009-2014 aldirako Euskadiko biodibertsitatearen Estrategia.**

Edota are hurbilago oraindik:

**Eskoriatzako Tokiko Agenda 21eko udal Ekintza Plana (2006). Konkretuki Laugarren lerro estrategikoa eta 4.1 eta 4.2 programak.** Biodibertsitatea babesteko eta programa hauen baitan, herri mailako biodibertsitate, natura eta paisai aldetik interesa duten guneen sare bat eta Interesdun Baso Naturalen Herri Mailako Katalogoa sortzeko lehenengo pausoak eman ditugu legealdi honetan.

Hala ere ez da nahikoa. Biodibertsitateak krisian jarraitzen du. Baita gure herriko eskalan ere (batez ere habitak ondatu eta artifizializatu egiten ditugulako, gure desarrollismo-progresoaren izenean).

Bai, bere garaian, 2010erako gainbeherako joera hau gelditzeko helburuarekin konpromiso politikoak maila guztietan sinatu baziren ere, adituek diotenez biodibertsitateak gainbehera jarraitzen du.

Por tanto, el declive de la biodiversidad continua. Las voces más experimentadas coinciden en este diagnóstico. Y también hay un amplio acuerdo en que las acciones a **escala local son claves para frenar esta tendencia**. Piensa global y actúa local.

Gogoan izan mendilarreak eta astillarrak, haltzadiak, pagadiak, ameztiak, zelaiak, eta arkaiztiak, ameztokiak, leizarrak, zozoak eta soroak, buztanikarak, arkanbeleak, rosaliak, okilak, oilagorrek, lumagorriak, herri behiak, pottokak eta astoak, Euskal txerriak, aretxabaletako tomate mozkorrak, urdinsagarrek eta andargarratzak, lupok, haginak, berakatzak, kolore guztietako pertsonak edota karakolak, uhandreak, birusak eta bakterioak, porruak, patatak, pasmobelarrak, zumelikarrak, txixarak, saguzarrak, ezkailuak, amorrainak, arrano eta agiparduak, asunak azpigorri ahuntzak, aranak eta masustak, larrosak, irisak eta bioletak eta...etab,etab,etab...

..... hauek guztiak (esta askoz gehiago) gure inguruaren biodibertsitatea dira.

Pienso que todas estas variedades, especies y ecosistemas desde las más pequeñas a las más grandes, nos aclaran la importancia de conservar la biodiversidad a nuestra escala local.

Guzti honegatik, ingurumen sailak ondoko adierazpena proposatzen du. Una declaración que sin duda servirá para apuntalar el compromiso de nuestro ayuntamiento en la conservación de la biodiversidad. Horrela dio:

**Hirigintza planifikatzerakoan** kontuan hartu beharreko alderdi erabakigarrien artean biodibertsitatearen zainketa sartzeari; bereziki, ekosistema eta espezie ahulen (bertako basoak, errekek...) eta korridore ekologikoen babesa.

**Babestutako natura-gune berriak tokian toki** sortzearen alde egitea horiek duten natura balioengatik. Ahal den guztian, horrelako natura-guneak erosi eta **herri-ondasun bihurtzeko** konpromisoa hartzen dugu, gune horien babesa bi aldiz bermatuta egon dadin.

Biodibertsitatearen babesa **irizpidetzat hartzea produktuak erosi edo zerbitzuak kontratatzerakoan**.

**Gune berdeak** biodibertsitatearen **babeserako irizpideekin kudeatzea**.

**Herritarrek informatu eta sentsibilizatzea** eta biodibertsitatearen babesarekin lotutako ekintzak sustatzea.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak "biodibertsitatea salba dezagun tokian tokitik hasita" proposamenari buruzko adierazpen instituzionala egitea erabaki du. Adierazpena onartu eta sinatzen dute ekitaldi honetan bertaratutako guztiek eta aktaren eranskina izango da.

Erabakia hartuta, Pierrugues jaunak hitza hartu eta honako hau adierazi du:

Onartu dugun "biodibertsitatea salba dezagun tokian tokitik hasita" izenburuko adierazpena dela-eta, osoko bilkura honetan Eskoriatzako ipar magalean autopista sarreratik Mazmela auzoko sarrera ingururaino parke bat egiteari buruz bere egunean hirigintza batzordean egin nuen proposamena aurkeztu gura dut.

"Natura balioengatik toki mailan babestutako gune berriak sortzea sustatzearen" bidean dagoen proposamen honekin zonalde hori guztiori zaindu eta hobetzea gura da, segurtasuna, osasungarritasuna eta paisaia bermatuz; Eskoriatzako Udalak ordenatuta, araututa eta behar bezala kudeatuta egon dadila, aisiarako guneekin, Bidebarrieta pasealekua berreskuratuz eta garbituz, iturriak berreskuratuz, mendi-hegal horretarako zuhaitz egokiak landatuz, eta zonaldeko urak eta lur mugimendu oro kontrolatuz..

Horregatik, eta NBEk biodibertsitatearen nazioarteko urtea izendatu dutelako, 2010. urte honek eskaintzen digun aukerarengatik, Udalbatzarrari ondorengo proposamena egiten diot: "Udalak konpromisoa hartzen du Eskoriatzako ipar hegalean, Aldai mendi tontorraren inguruan, natura eta paisaia babesteko plan berezi bat egiteko".

Alkateak adierazi du zuzenena proposamena Hirigintza batzorde informatzailean jorratu eta eztabaidatzea dela.

Adierazpena sinatu ondoren, deialdiko gai zerrendako hurrengo gaia jorrotzeki ekin zaio.

#### **4- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Aho batez erabaki da deialdiko 5., 6., 7. eta 8. gaiak gai zerrendan sartzea.

**5.- LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAN DAGOEN ETXEBIZITZAREN ERABILERA PRIBATUA ESLEITZEKO PROZEDURA IREKITZEA. BALDINTZA JURIDIKOEN ETA EKONOMIKOEN AGIRIA ONARTZEA.**

Udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, eta legeak eskatzen duen gehiengo absolutuaren quoruma osatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Luis Ezeiza Herri Eskolan dagoen etxebizitzaren erabilera pribatua emakida erregimenean esleitzeko espedienteari hasiera ematea.

**Bigarrena:** Errentamendua arautu behar duen baldintza juridikoen eta ekonomiko-administratiboen agiria onartzea.

**Bosgarrena:** Lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea.

**6.- SANTA ANA 19, 1. HELBIDEKO ETXEBIZITZA ERRENTAN ESLEITZEKO PROZEDURA IREKITZEA. BALDINTZA JURIDIKOEN ETA EKONOMIKOEN AGIRIA ONARTZEA.**

Udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, eta legeak eskatzen duen gehiengo absolutuaren quoruma osatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Santa Ana auzoko 19 zenbakidun lehenengo solairuko eskubiko etxebizitza errentan ematea.

**Bigarrena:** Errentamendua arautu behar duen baldintza juridikoen eta ekonomiko-administratiboen agiria onartzea.

**Hirugarrena:** Lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea.

**7.- ONURADUN AUTONOMOENTZAKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZURAKO BAREMOA ONARTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** 2010. urterako ondorengo baremoa onartzea onuradun autonomoentzako etxez etxe laguntza zerbitzurako:

<u>Diru sarrerak</u>	<u>Aportazioa</u>
471,32 €.....	% 0
471,33 – 523,71€.....	% 10
523,72 – 575,54€.....	% 20
575,55 – 627,85€.....	% 30
627,86 – 680,82€.....	% 40
680,83 – 733,21€.....	% 50
733,22 – 785,55€.....	% 60
785,56 – 837,92€.....	% 70
837,93 – 890,31€.....	% 80
890,32 – 942,68€.....	% 90
+ 942,69€.....	% 100

#### DIRU SARREREN INDIZE ZUZENTZAILEA

2 pertsona.....	1,25
3 pertsona .....	1,40
4 pertsona .....	1,60
5 pertsona .....	1,80
6 pertsona .....	2
7 pertsona .....	2,20

#### INDIZE ZUZENTZAILEA

Hilean 20 ordu arte.....	X 1
21 etik 30 arte.....	X 0,9
31 tik 42 arte.....	X 0,8
43 tik aurrera .....	X 0,7

### **8.- TOKIO IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA. UDALSAREA 21 SENDOTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Eskoriatzako Udalak bat egiten du “Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko iraunkortasunaren aldeko konpromisoarekin: UDALSAREA 21 sendotzea (jasangarritasunerako euskal udal sarea)”.

**Bigarrena:** Ondoren adieraziko diren pertsonak Tokiko Agenda 21eko prozesuak inplementatzeko arduradun eta ordezeko izendatzea.

Arduraduna: Pedro Lasagabaster Armendariz

Ordezkoa: Leire Okaranza Ibabe.

**Hirugarrena:** Iraunkortasunerako euskal udal sareko partaide izateagatik urteko kuota ordaintzeko beharrezko tramiteak egin daitezela. Eskoriatzari 300,00 euroko kuota dagokio.

**Laugarrena:** Alkateari almena ematea atxikipen dokumentua sinatzeko.

### **9.- GALDE-ESKEAK**

#### **9.1.- HAURRESKOLA INGURUAN JARRITAKO HORMA**

Eraña andreak galdetu du ea noiz margortu behar den haurreskolaren eraikin aurrean egin den horma.

Barandiaran jaunak erantzun dio laster egingo dela, San Pedro jaiak amaitutakoan margotzea espero dela.

#### **9.2.- TELESKO UDAL TELEBISTA**

Merino jaunak galdetu du zergatik ez den telebista ikusi Intxaurtxueta inguruan.



Jakinarazi da joan zen asteburuan su hartu zuela San Pedroko kaxa elektrikoak, eta udal telebista sareari eragin ziola bai San Pedro bai Intxaurtxueta inguruan. Adierazi denez, arazoa momentukoa izan da, eta LTDari eragin dion beste arazo batekin batera gertatu da: Itelaspik errepikagailua jarri zuen eta horren seinaleek Teleskoko seinalearekin interferentziak egiten zituen, eta horrek kanalak berriz sintonizatu beharra eta anplifikadorez anplifikadore doitzen joan beharra ekarri du.

Merino jaunak (Okaranza andreari zuzenduta). Auzoetan ondo hartzen da seinalea?

Okaranza andrea: auzoetako arazoa Wifi emisioarekin da.

### 9.3.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA.

Merino jaunak adierazi du biodibertsitateari eta Agenda 21eri buruz gaur hartutako erabakiak ondo daudela, baina, ez dela ahaztu behar gaur, apirilak 28, Laneko Segurtasun eta Osasunaren nazioarteko eguna ere badela, eta munduan lan-istripuz hildakoei buruz Nazioarteko sindikatu-konfederazioak emandako datuak kontuan hartzekoak direla: egunean 1000 langile baino gehiago hiltzen dira, eta minuturo 234.

### 9.4.- MAIATZAREN 1A, LANAREN EGUNA

Lanaren eguna dela-eta, Merino jaunak eskatzen du datorren maiatzaren 1ean udal webgunetik Eskoriatzako langileei dei egitea sindikatuek egingo dituzten ekitaldietan parte hartzera.

Alkate jaunak horrela egingo dela erantzun dio.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat ematen da bilkura hemeretziak eta berrogeita hamabost minututan. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendáriz  
Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria  
Ander Aguiriano Errasti  
Edorta Barandiaran García  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Begoña Eraña Lazkano  
Karmelo Leceta Abasolo  
Maider Otamendi Tolosa  
Juan Luis Merino Sanabria  
Ignacio Pierrugues Barberán.  
Leire Okaranza Ibabe

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamarreko apirilaren hogeita zortzian, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veintiocho de abril de 2010, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

**1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 31/03/2010.

**2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA Y RESOLUCIONES**

**3.1.- RESOLUCIONES**

El Sr. Alcalde da cuenta de los acuerdos adoptados hasta el 22 de abril de 2010 haciendo entrega de una copia del extracto de los mismos.

Hace especial referencia a los acuerdos cuya copia literal se transcribirán a continuación. Indica que dará información más detallada sobre dichos acuerdos en la próxima comisión de hacienda.

#### DECRETO DEL ALCALDE B10/00241

Vista la Liquidación del Presupuesto del Ayuntamiento, correspondiente al ejercicio de 2009, formulada por el Interventor de Fondos así como los documentos que integran la misma, y encontrándola conforme, en el ejercicio de las competencias que me atribuye el art. 49.3. de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales

#### RESUELVO

**Primero.-** Aprobar la Liquidación del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2009 y que presenta el siguiente resumen:

1.- Fondos líquidos de Tesorería a 31-12-.2009.		295.733,46 €
2.- Saldos pendientes de cobro a 31-12-.2009		3.023.684,24 €
Deudores presupuestarios:	1.082.514,43 €	
Deudores extrapresupuestarios:	1.941.169,81 €	
- Cobros pendientes aplicación:		
3.- Saldos pendientes de pago a 31-12-2009		587.923,04 €
Acreedores presupuesto gastos:	456.673,27 €	
Acreedores presup. ingresos:		
Acreedores extrapresupuestarios:	130.924,77 €.	
- Pagos pendientes de aplicación:		
4.- Remanente de Tesorería bruto (1+2-3):		2.731.819,66 €
5.- Saldos de dudoso cobro:		550.810,16 €.
6.- Remanente de Tesorería líquido (4-5)		2.180.009,50 €
7.- Remanente de Tesorería para gastos con financiación afectada:		343.401,58 €
8.- Remanente de Tesorería para gastos generales (6-7):		1.837.607,92 €.
9.- Resultado operaciones presupuestarias del Presupuesto vigente:		(-)453.844,86 €
10.- Resultado operaciones de presupuestos liquidados en ejerc. anter.:		.(-) 4.123,62 €
11.- Ajuste obligaciones financiadas con Remanente.de Tesorería:		1.120.608,23 €.
12.- Ajuste desviaciones en gastos con financiación afectada:		(-)211.164,83 €
13.- Resultado presupuestario (9+10+11+12):		874.804,58 €.
14.- Remanentes de créditos susceptibles de incorporación:		1.059.341,69 €.
15.- Remanentes de créditos no incorporables:		167.795,20 €
16.- Total Remanentes de crédito (14+15):		1.227.136,89 €.

**Segundo.-** Elevar a definitivas las aprobaciones provisionales realizadas, condicionadas a la aprobación de la Liquidación del Presupuesto 2009, de los siguientes expedientes de modificación de créditos.:

Nº EXPEDIENTE	FECHA APROBACION PROVISIONAL	MODALIDAD	ORGANO APROBACION
1	15/01/2010	Incorporación anticipada	R.Alcaldía Nº 25
2	02/02/2010	Créditos adicionales	R.Alcaldía Nº 64
3	24/02/2010	Créditos adicionales	Pleno 24-02-2010
4	09/03/2010	Incorporación anticipada	R.Alcaldía Nº159

**Tercero.-** Remitir copia del Expediente de Liquidación a la Diputación Foral de Guipúzcoa en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 49.5 de la Norma Foral antes referenciado.

**Cuarto.-** Dar cuenta del presente Decreto al Pleno del Ayuntamiento en la próxima sesión que se celebre.

Eskoriatza, a miércoles, 31 de marzo de 2010

El Alcalde

Igualmente se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora con motivo de dicho expediente y en el que pone de manifiesto el cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria, exigido por la Ley 18/2001, de 12 de diciembre.

#### RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

**NÚMERO:** B10/00251

**FECHA:** 06/04/2010

**ASUNTO:** MODIFICACIÓN DE CRÉDITO: INCORPORACIÓN (incorporación)

**EXPEDIENTE:** 2010KKRI0003

En el presupuesto para el 2010 del Ayuntamiento de Eskoriatza se ha tramitado el expediente de modificación de crédito para incorporar los remanentes de crédito del año anterior.

Examinado el mencionado expediente, se ha examinado también la propuesta de aprobación así como las demás actuaciones realizadas en el expediente.

En uso de las competencias otorgadas por el artículo 32.6 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales para aprobar la incorporación de créditos,

#### RESUELVO

**Uno.-** Aprobar el expediente de modificación de créditos nº 5 –sobre la incorporación del remanente del presupuesto del año anterior al presupuesto del 2010- según el resumen de capítulos siguiente:

#### GASTOS-INCREMENTOS

Cap.	Denominación	Euros
1	Gastos de Personal	
2	Compra de bienes corrientes y servicios.	25.841,32 €
4	Transferencias corrientes.	
6	Inversiones reales.	463.935,38 €
7	Transferencias de capital	
8		5.000,00 €

9	Activos financieros Pasivos financieros	
<b>TOTAL DE REMANENTE INCORPORADO</b>		<b>494.776,70</b>

**INGRESOS-FINANCIACIÓN**

Cap.	Denominación	Euros
4	Transferencias corrientes	5.750,00 €
6	Otros ingresos deducidos de actividades urbanísticas	59.117,41€
7	Transferencias de capital	15.000,00 €
8	Activos financieros.. Remanentes de tesorería	414.909,29 €
<b>TOTAL DE CRÉDITO INCORPORADO</b>		<b>494.776,70 €</b>

**Dos.-** Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites, procede que por los servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos tanto en los ingresos como en los gastos.

En Eskoriatza, a 6 de abril de 2010.  
EL ALCALDE

Igualmente se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora con motivo de dicho expediente y en el que pone de manifiesto el incumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria, y señala que no obstante no es necesario aprobar un plan económico financiero, hasta la liquidación del presupuesto 2010, a tenor de lo dispuesto en el art. 21 del Real Decreto 1463/2007, de 2 de noviembre por el que se aprueba el reglamento de desarrollo de la Ley 18/2001, de 12 de diciembre.

## **RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA**

**NÚMERO:** B10/00274

**FECHA:** 14/04/2010

**ASUNTO:** APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE DE HABILITACIÓN DE CRÉDITO

**EXPEDIENTE:** Modificación de créditos nº 6 del presupuesto de 2010

**INTERESADO:**

*La secretaria-interventora ha redactado el expediente de aprobación de la modificación de créditos nº 6 efectuada al presupuesto de 2010 (modalidad habilitación de créditos).*

*Inspeccionados los documentos que conforman el expediente y dado el visto bueno,*

### **RESUELVO**

*1.-Aprobar el expediente de habilitación de créditos nº 6 efectuado al presupuesto de 2010, creado a consecuencia de la recaudación de los ingresos de carácter finalista. En total, 440.105,00 €.*

**En Eskoriatza, a 14 de abril de 2010.**

EL ALCALDE,

Igualmente se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora con motivo de dicho expediente y en el que pone de manifiesto el incumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria, y señala que no obstante no es necesario aprobar un plan económico financiero, hasta la liquidación del presupuesto 2010, a tenor de lo dispuesto en el art. 21 del Real Decreto 1463/2007, de 2 de noviembre por el que se aprueba el reglamento de desarrollo de la Ley 18/2001, de 12 de diciembre de Estabilidad Presupuestaria,

### **2.2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA**

Según informa el Sr. Alcalde durante la tarde de hoy ha recibido por correo electrónico un mensaje de la dirección de obra de la ladera de Aranburuzabala haciendo saber que las obras finalizarán según plazo previsto, para el 30 del corriente, así como que durante la semana que viene mantendrán una reunión con la empresa contratista para ver los trabajos de limpieza y reparación que han de llevarse a cabo. Todo ello permite, y según palabras del Sr. Alcalde es lo más importante, que los vecinos que siguen realojados en otras viviendas puedan volver a las suyas.

### **3.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE “MEDIDAS PARA CONSERVAR LA BIODIVERSIDAD”**

El Sr. Alcalde toma la palabra y lee el siguiente texto (se transcribe literalmente):

*Jakingo duzuen bezala Nazio Batuek 2010. urtea biodibertsitatearen urtea izendatu dute. Baina hau ez da kontu berria: argi dago gobernu eta instituzio gehienak pasa den mendeko amaieratik dibertsitate biologikoa zaindu beharraren garrantziaz ohartu direla.  
La importancia de la conservación de la diversidad biológica es un hecho constatado desde finales del pasado siglo por la gran mayoría de gobiernos e instituciones del planeta.*

A dibide gisa honako mugari hauek azpimarratuko ditut:

**1972an Stockholmeko nazioarteko biltzarra:** lehen aldiz onartu zen nazioartean ingurugiroa babesteak eta hobetzeak garapen ekonomikoa eta munduaren oparotasunean eragina dutela.

**Biodibertsitate Ekologikoari buruzko Munduko Hitzarmena. Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarrean, 1992an, Rio de Janeiron garatu eta sinatu zena.** Hitzarmen honek mundu mailan lehenengoz biodibertsitatearen berezko balioa aitortzen zuen ("elementu funtsezkoa gizakiaren ongizatearen kalitateerako, eta erabakigarria gure dimentsio social, ekonomikoa eta espiritualari eusteko")

Orduz geroztik, ugari izan dira biodibertsitatea babesteko hainbat erakundek hartutako erabakiak. Gugandik hurbilago:

**Eusko Jaurlaritzaren 2002-2020 aldirako Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen estrategia;** 2007-2010 aldirako **II. Ingurumen Esparru Programa** eta 2009-2014 aldirako **Euskadiko biodibertsitatearen Estrategia.**

Edoeta are hurbilago oraindik:

**Eskoriatzako Tokiko Agenda 21eko udal Ekintza Plana (2006). Konkretuki Laugarren lerro estrategikoa eta 4.1 eta 4.2 programak.** Biodibertsitatea babesteko eta programa hauen baitan, herri mailako biodibertsitate, natura eta pasai aldetik interesa duten guneen sare bat eta Interesdun Baso Naturalen Herri Mailako Katalogoa sortzeko lehenengo pausoak eraman ditugu legegaldi honetan.

Hala ere ez da nahikoa. Biodibertsitateak krisian jarraitzen du. Baita gure herriko eskalan ere (batez ere habitak ondatu eta artifizializatu egiten ditugulako, gure desarrollismo-progresoaren izenean). Bai, bere garaian, 2010erako gainbeherako joera hau gelditzeko helburuarekin konpromiso politikoak maila guztietan sinatu baziren ere, adituek diotenez biodibertsitateak gainbehera jarraitzen du.

Por tanto, el declive de la biodiversidad continua. Las voces más experimentadas coinciden en este diagnóstico. Y también hay un amplio acuerdo en que las acciones a **escala local son claves para frenar esta tendencia.** Piensa global y actúa local.

Gogoan izan mendilarreak eta astillarrak, haltzadiak, pagadiak, ameztiak, zelaiak, eta arkaiztiak, ameztokiak, leizarrak, zozoek eta soroak, buztanikarak, arkanbeleak, rosaliak, okilak, oilagorak, lumagorriak, herri behiak, pottokak eta astoak, Euskal txerriak, aretxabaletako tomate mozkorrak, urdinsagarrik eta andargarratzak, lupoak, haginak, berakatzak, kolore guztietako pertsonak edota karakolak, uhandreak, birusak eta bakterioak, porruak, patatak, pasmobelarrak, zumelikarrak, txixxarak, saguzarrak, ezkailuak, amorrainak, arrano eta agjarduak, asunak azpigorri ahuntzak, aranak eta masustak, larrosak, irisak eta bioletak eta... etab, etab, etab...

..... hauek guztiak (esta askoz gehiago) gure inguruaren biodibertsitatea dira.

Pienso que todas estas variedades, especies y ecosistemas desde las más pequeñas a las más grandes, nos aclaran la importancia de conservar la biodiversidad a nuestra escala local.

Guzti honegatik, ingurumen sailak ondoko adierazpena proposatzen du. Una declaración que sin duda servirá para apuntalar el compromiso de nuestro ayuntamiento en la conservación de la biodiversidad. Horrela dio:

**Hirigintza planifikatzerakoan** kontuan hartu beharreko alderdi erabakigarrien artean biodibertsitatearen zainketa sartzeari; bereziki, ekosistema eta espezie ahulen (bertako basoak, errekek...) eta korridore ekologikoen babesa.

**Babestutako natura-gune berriak tokian toki** sortzearen alde egitea horiek duten natura balioengatik. Ahal den guztian, horrelako natura-guneak erosi eta **herri-ondasun bihurtzeko** konpromisoa hartzen dugu, gune horien babesa bi aldiz bermatuta egon dadin.

Biodibertsitatearen babesa **irizpidetzat hartzea produktuak erosi edo zerbitzuak kontratatzerakoan.**

**Gune berdeak** biodibertsitatearen **babeserako irizpideekin kudeatzea.**

**Herritarrak informatu eta sentsibilizatzea** eta biodibertsitatearen babesarekin lotutako ekintzak sustatzea.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión informativa de Urbanismo y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno acuerda hacer la declaración institucional propuesta sobre "Salvar la Biodiversidad desde lo Local", declaración que es suscrita y firmada en este acto por todos los presentes y que se unirá como anexo al acta.

Adoptado el acuerdo, el Sr. Pierrugues hace la siguiente intervención:

*Con motivo de la declaración que acabamos de aprobar relacionada con: "salvar la biodiversidad desde lo local", quiero presentar en este pleno la propuesta que ya hice en su día en la comisión de urbanismo, relativa a crear un parque en la ladera norte de Eskoriatza, desde la entrada a la autopista hasta las cercanías de la entrada al barrio de Mazmela.*

*Con esta propuesta, que está en la línea de "apoyar la creación de nuevos espacios protegidos a escala local por su valor naturalístico" lo que se pretende es preservar y mejorar toda la zona, garantizando la seguridad, salubridad y el entorno paisajístico; que esté ordenada, regulada y gestionada convenientemente, por el Ayuntamiento de Eskoriatza, con zonas recreativas y de ocio; restaurando y saneando el paseo de Bidebarrieta recuperando las fuentes del lugar; repoblando con árboles apropiados para esta ladera, y controlando las aguas y todo movimiento de tierras que se produzca en la zona.*

*Por ello, y por la oportunidad que nos ofrece este 2010, declarado año internacional de la Biodiversidad por la ONU, presento en el Pleno la siguiente propuesta: "El Ayuntamiento se compromete a la elaboración de una Plan Especial de protección natural y paisajístico de la ladera norte de Eskoriatza, en el entorno de la cima de Aldai"*

El Alcalde le señala que lo más correcto es que la propuesta sea tratada y debatida en la Comisión Informativa de urbanismo.

Tras la firma, se pasa a tratar el siguiente asunto reseñado dentro del orden del día de la convocatoria.

#### **4- RATIFICAR LA INCLUSIÓN DE ASUNTOS DENTRO DEL ORDEN DEL DÍA.**

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión de los asuntos a tratar dentro del orden del día y reseñados en la convocatoria con los números 5, 6, 7 y 8.

#### **5.- INCOACIÓN DE PROCEDIMIENTO PARA ADJUDICAR EL USO PRIVATIVO DE LA VIVIENDA SITA EN LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA. APROBACIÓN DEL PLIEGO DE CONDICIONES JURÍDICAS Y ECONÓMICAS.**

Con el voto favorable de todos los corporativos asistentes, que constituyen el quórum de la mayoría absoluta legal, ACUERDA:

**Primero:** Incoar expediente para adjudicar en régimen de concesión el uso privativo de la vivienda sita en Luis Ezeiza Herri Eskola.

**Segundo:** Aprobar el Pliego de condiciones jurídico económico-administrativas que ha de regir arrendamiento.

**Tercero:** Anunciar la licitación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

#### **6.- INCOACIÓN DE PROCEDIMIENTO PARA ADJUDICAR EN ARRENDAMIENTO LA VIVIENDA SITA EN SANTA ANA 19-1º. APROBACIÓN DEL PLIEGO DE CONDICIONES JURÍDICAS Y ECONÓMICAS.**

Con el voto favorable de todos los corporativos asistentes, que constituyen el quórum de la mayoría absoluta legal, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Arrendar la vivienda derecha del primer piso del edificio número 19 de Santa Ana auzoa.

**Segundo:** Aprobar el Pliego de condiciones jurídico económico-administrativas que ha de regir arrendamiento.

**Tercero:** Anunciar la licitación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.



## **7.- APROBACIÓN DEL BAREMO PARA EL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO DESTINADO A BENEFICIARIOS AUTÓNOMOS.**

Con el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Aprobar para el año 2010 el siguiente baremo para el servicio de Ayuda a Domicilio destinado a beneficiarios no dependientes.

<u>Ingresos</u>	<u>Aportación</u>
471,32 €.....	% 0
471,33 – 523,71€.....	% 10
523,72 – 575,54€.....	% 20
575,55 – 627,85€.....	% 30
627,86 – 680,82€.....	% 40
680,83 – 733,21€.....	% 50
733,22 – 785,55€.....	% 60
785,56 – 837,92€.....	% 70
837,93 – 890,31€.....	% 80
890,32 – 942,68€.....	% 90
+ 942,69€.....	% 100

### INDICE CORRECTOR DE LOS INGRESOS

2 personas.....	1,25
3 personas.....	1,40
4 personas.....	1,60
5 personas.....	1,80
6 personas.....	2
7 personas.....	2,20

### INDICE CORRECTOR

Hasta 20 horas al mes.....	X 1
De 21 a 30.....	X 0,9
De 31 a 42.....	X 0,8
Más de 43.....	X 0,7

## **8.- COMPROMISO POR LA SOSTENIBILIDAD LOCAL. CONSOLIDACIÓN UDALSAREA 21.**

Con el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** El Ayuntamiento de Eskoriatza se adhiere al “Compromiso por la Sostenibilidad Local en el Comunidad Autónoma del País Vasco; consolidación de UDALSAREA 21 (Red Vasca de municipios hacia la sostenibilidad)

**Segundo:** Designar a las personas que a continuación se dirán como responsable y suplente en la implementación de los procesos de la Agenda Local 21:

Responsable: Pedro Lasagabaster Armendariz  
Suplente: Leire Okaranza Ibabe.

**Tercero:** Que se hagan los trámites preceptivos para el abono de la cuota anual de pertenencia a la Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad, que para el caso de Eskoriatza asciende a 300,00 euros.

**Cuarto:** Facultar al Alcalde para que formalice el documento de adhesión.

## **9.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

### **9.1.- PARED INSTALADA EN EL ENTORNO DEL HAURRESKOLA**

La Sra. Eraña pregunta cuándo se va a pintar la pared que se ha colocado delante del edificio de la haurreskola.

El Sr. Barandiaran responde que próximamente, que se espera se pinte después de las fiestas de San Pedro.

### **9.2.- TELEVISION LOCAL TELESKO**

El Sr. Merino pregunta sobre las causas por las que en la zona de Intxaurtxueta no se ha visto la tele.

Se informa que el pasado fin de semana cogió fuego el cuadro eléctrico de San Pedro y que afectó a la red de televisión local tanto en la zona de San Pedro como en la de Intxaurtxueta. Ese problema puntual, según se señala, ha coincidido con otro que ha afectado a las TDTs: Itelaspí instaló un repetidor cuyas señales hacían interferencias con las de telesko, y ello ha generado la necesidad de tener que volver a sintonizar los canales y tener que ir amplificador por amplificador ajustando.

Sr. Merino (dirigiéndose a la Sra. Okaranza). ¿la señal en los barrios se recibe bien?

Sra. Okaranza: El problema en los barrios está con la emisión de Wifi.

### **9.3.- DÍA MUNDIAL DE LA SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO.**

El Sr. Merino manifiesta que están muy bien los acuerdos adoptados en la sesión de hoy en relación a la biodiversidad o a la Agenda 21, pero que no hay que olvidar que hoy, día 28 de abril, es también el Día Mundial de la Seguridad y Salud en el Trabajo y que son datos a tener en cuenta los que da la Confederación Sindical Internacional sobre los fallecimientos que se producen en el mundo por siniestrabilidad laboral, al día mueren más de 1000 trabajadores/as y al minuto 234.

### **9.4.- 1 DE MAYO, DÍA DEL TRABAJO**

El Sr. Merino solicita que con motivo de la celebración del Día del Trabajo el próximo día 1 de mayo se haga un llamamiento por la página web del Ayuntamiento a las trabajadoras y a los trabajadores de Eskoriatza animándoles a participar en los actos que celebrarán los distintos sindicatos.

El Sr. Alcalde le responde afirmativamente.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las diecinueve horas y cincuenta y cinco minutos. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**